

## MERKATARIAK

ADELA GARTEIZ arropa dendea, AINHOA oinetakoak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALLUNTIZ burdindendea, AMILOTX liburu dendea, ANNE oinetakoak, ARES dastalekua, ARGIBIDE elektrizidadea, ARRIEN optikea, ARRONATEGI pinturak, ARTETXE argi dendea, ATXIKE ehiza eta arrantzea, BARAIAZARRA musika dendea, BAREÑO jantzi dendea, BATZOKIA jatetxea, BAZAR TXIKIA bazarra, BED'S koltxoak, BEGO ETA NEREA lurriedegia, BEREZI liburu dendea, BIDAGUREN gozotegia, BIKANA altzariak, BILBAO aseguroak, BOLIÑA jatetxea, BONILLA argazki dendea, BRONCEARIUM estetika zentroa, DECOREV dekorazinoa, DESMAYO SURF arropa dendea, DIONISIA arropa dendea, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa dendea, DUSI lentzeria, EL CASERÍO jatetxea, EGUREN optika dendea, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol dendea, ETXEKO makailoak, FERMIN zapata dendea, F-2 zapata dendea, GAROA konplenduetak, GAUBEKA liburu dendea, GERNI GARDEN lorak eta animaliak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraildegia, GIZON arropa dendea, GLOSS arropa dendea, GOTZONE umeentzako dendea, GUREA altzari dendea, IBAIALDE tapiz dendea, ILARGI dekorazinoa, INTER SPORT EXTREME, IRAZABAL burdin dendea, IZAGA uleapaindegia, IZASKUN harategia, IZASKUN EGURROLA uleapaindegia, JABIER harategia, JAIME harategia, JESUS MARI harategia, JOSTEN umeentzako arropea, JOSU jatetxea, JUANITA MUGARTEGI mertzzeria, KILI-KILI opari dendea, KIPU kirol dendea, KOPILASTER kopistegia, KOPIKOLOR kopistegia, KORTEZUBIKE jolasak, KOTOI mertzzeria, LAGUN ON albaitaritza, LEIDE jostailu dendea, LOIOLENE fruta dendea, LOREDER phararfarmazia, LOURDES fruta dendea, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa dendea, MADARIAGA hortz klinika, MARI SOL fruta dendea, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurriedegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK, MIKEL altzariak, NAIÁ arropa dendea, NERE KABIA taberna eta jatetxea, OGOÑO arrandegia, OJANGUREN elektratresnak, OLGÁ umeentzako arropea, OMAETXEBARRIA farmazia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietetikea, OMAGO kafetegia, PARAPHERNALIA jantzi dendea, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPI urdaitegia, PODIUM garaikurrak, QUOKKA arropa eta oinetakoak, SAN JUAN loteria, SANDALIO harategia TANDEM antenak, TAOS arropa dendea, TODO DESDE 100 bazarra, TOTORIKAGUENA jantzi dendea, TRENBIDE arropa dendea, TXANKAN arropa dendea, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako guztia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekaritza, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC tindategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatetxea, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH aseguroak..

## ENPRESAK

ABAUNZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia, AKELARRE Ostataua, ALGELEK SL, AREZA erakikuntzak, ARGÍ OLA Elektrizitate, ARRONATEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, AUKA BIDAIK, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, ILLUNZAR, GAKOAK, GERNIKA INMOBILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Aseguroak, GORRA Bulkanizatuak, INTXAUSTI SA Eraikuntzak, IRAZABAL Ardautegia, IZAGIRRE Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldegia, LA CAIXA, MACÍAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztegia, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Tailerra, SENDAGAI Osasun Zentrua, SERESNOR, SORKUNDE Finka Administrazioa, TALLERES SANJO tailerra, TTIPI-TTAPA, ZAUNKA produkzioak.

## ALKARTEAK

ADES ALKARTEA, AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUPE PILOTA TALDEA, ARRANO KULTUR ALKARTEA, ASINCO, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKARAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILLEEN ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, ETSIAK MAHAI-TENIS TALDEA, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TALDEA, GERNIKA-LUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKU-TIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA, GERNIKA GOGORATUZ, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOIZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEASUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, JAI ALAI, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, KOSNOAGA IGERIKETA TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARGI ABESBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAI, TIRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAIKO PERRETXIKOZALEAK ALKARTEA, URDAIBAIKO RUGBY ESKOLA, URDAIBIKERS MOTORZAILLEEN ALKARTEA, ZANTZOA EUSKAL KULTUR ALKARTEA, ZINE KLUB KULTUR ALKARTEA

## Busturialdean Euskaraz Bizi

### Pernando Basterretxea

### Busturialdean Euskaraz Bizi-ko kidea

2008 urtea oso garrantzitsua izaten ari da Gernika-Lumotarrantzako. Herria euskalduntzeko egiten gabilzan bidean beste pauso nabari bat emoteko tresna barri bat daukagu. Bai Euskarari Ziurtagiria.

Urte batzuk pasau dira Gernika-Lumoko euskalgintzako eragile nagusiok bide honi ekin geuntsanetik. Urteak aurrera joan ahal hainbat helburu lortu doguz guztion artean. Besteak beste, Hitza egunkaria sortu dogu, alfabetatze euskalduntze mugimendu herritarrara bultzatu,erabilera bultzatzeko Berbalagun proiektua sortu, euske-rearentzat estatus juridikoa eskatu, Euskaldunon hizkuntza eskubideen defentsa zorrotza egin...

Orain, barriro be, euskereagazko konpromisoak hartzeko sasoia da, lehengoari eutsi eta aurrerapauso sendoak emon. Hartutako konpromisoak zeintzuk diren erakutsi egin behar da herrian. Ez da nahikoa euskereagazko aldeketasuna eukitea. Aldeko jarrerea eukiteaz ganera, egunerokotasunean erakutsi egin behar da. Konpromisoak hartu, bete, eta betetakoa herrian erakutsi, euskeraz bititzea posible dala zabaldu herrian.

Gernikarrok euskeraz erosteko eskubidea daukagu, eta herriko merkataria eta enpresek zerbitzua euskeraz emoteko betebeharra daukie. Askok bete egiten dabe gaur egun, eta beste haibestek konpromiso zehatzak hartu dabezala erakutsi dabe.

Horrenbestez, egiten dana zabaldu egin behar da. Gaur egun biztanleon hizkuntza eskubideak bete egiten dira hainbat establezimendutan, eta hori argi esan behar dogu. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu eta bete egiten dira herrian (merkataritzan, lantegietan eta tabernetan), eta badakigu non, zigilua daukie eta.

Orain, herritarren egin beharra da hizkuntza eskubideak urratzen dabezan saltoki eta enpresei bete behar hori erakustea. Batetik bete beharra, eta bestetik posible dala be bai. Herritar guztiok erakutsi behar dogu geure hizkuntzan bizi gura dogula eguneroko hartu-emonetan.

Euskereak bizi egin behar dau eta horren alde gagozala erakutsi behar dogu modu aktiboan. Geure konpromisoa, zeure konpromisoa, Gernika-Lumon euskeraz bizi, Busturialdean euskeraz bizi, Euskal Herrian euskeraz bizi.

## umorea



Erredakzinoa eta maketazinoa: ARTEZ Euskara Zerbitzua

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala



## 28 entidadek jaso dabe Bai Euskarari Ziurtagiria Gernika-Lumon

Banaketa ekitaldia pasadan garagarriaren 5ean ospatu zan Merkatu plazan eta berton Ziurtagiria eskuratu daben guztiek hartu eben parte. 28 enpresa, saltoki eta mota guztietako entidade barrik eskuratu dabe Bai Euskarari Ziurtagiria Gernika-Lumon. Horreetatik 11k 'Zerbitzua Euskaraz' mailela lortu dabe eta 17k 'Bidean' mailela.

Ziurtagiri maila desberdinak dagoz, beraz alkarte, enpresa edo establezimendu bakotzak erabilten daben araberakoa eukiko dau. Ziurtagiria urte beterako da, eta hurrengo urteko ebaluazinoa egiten danean mailaz igoteko aukerea be badago hobekuntzarik egin bada.

Ziurtagiria lortu dabenen kopurua handia bada be, are garrantzitsuagoa da entidadeen nolokotasuna: horreetatik 10, enpresa industrialaren sektoreari jagokoz (Bengoazarra, SA, Gernika

Garbiketak, SL, Aixerrota Garbilekua, Izagirre eraikuntzak, Jose Luis Kristaldegia, Zaunka Produkzioak, Zurich Aseguruak, Gernika Kirolekua, Ekin Autoak eta Ttipi-Ttapa podologia Klinika); 9, merkataritza-ostalaritzari; 7, kultura, gizarte mugimendu eta kirolaren sektoreari (Bake Leku, Kosnoaga Igeriketa alkarteak, Arku Jaurtiketa alkarteak, GRT, ...); eta 4, zerbitzuen eta finantzen sektoreari.

Gernika-Lumo orain gitxi hasi da Bai Euskarari Ziurtagiriaren sustapenagaz baina behar handia egin da lan-munduan euskalduntzean eragiteko. Horren erakusgarri da egunez egun merkataritza, alkarteak eta enpresa txikiak euskalduntzeko egiten dan lana.

Barriro be, Gernika-Lumok euskerearen normalizazioan pauso garrantzitsua emon dau.



2008 urtea  
14. zk.

### Abenduaren 13an BECera!

Abenduaren 13an Barakaldoko BECen izango dogu zita. Kontseiluak nazio mailako ekitaldia antolatatu du abenduaren 13an BECen. Ekitaldira sartzeko sarrerera eskuratu behar da. Gernika-Lumon Kultur Etxean eta ikastetxeetan egongo dira eskuragarri. Ganera, Udalak autobusa jarriko dau prezio sinbolikoan, bertaratzea errazteko.



Abenduaren 13ko ekitaldiaren aurretik ordea, urtean zehar Kontseiluaren 10. urteurrena dala-ta, "Euskaraz Bai" astearren barruan erakusketa ibiltaria egin da Euskal Herriko hainbat herritan. Gernika-Lumon be ospatu gendun 'Euskaraz Bai' astea. Ekimenez beteriko astea izan zan Kontseiluak martxan jarri eta Udaleko Euskara Zerbitzua, Seber Altube Ikastola, AEK, Busturialdeko Euskeraz Bizi elkarte eta Artez Euskara Zerbitzuaren laguntzea izan eban egitasmoa.



## Bengozarra, euskararen bidean

Bengozarra enpresek urte asko daroaz Geure Berbie Euskeraz Kanpainan parte hartzen.

Hitzarmena sinatu ebanean hartu ebazan konpromisoak beteten eta aurrerapausoak emoten ahaleginduten da. Gaur egun, Euskera Plan zehatzagoa garatzea erabagi dau. Euskerearen erabilera dala-ta, apirilaren hasieran Bengozarra enpresek bertako beharginen euskerearen ezagutza eta erabilerearen diagnostikoa egitea erabagi eban.

Orain, euskerearen alde beste aurrerapauso bat emoteko 3 urterako Euskera Plana martxan ipintea erabagi dabe. Euskereari gaur egun daukan baino leku handiagoa eta hobe eskeini gura deutso eta horretarako akordioa sinatu dabe.

Ganera, euskerearen normalizazioaren bidean, enpresek euskereagazko daukan konpromisoaren erakusgarri Bai Euskarari Ziurtagiriko "Bidean" bereizgarria lortu dabe.

## Certificado 'Bai Euskarari'

El pasado 5 de julio se celebró en Gernika-Lumo la entrega de los certificados 'Bai Euskarari'. En total fueron 28 las empresas y todo tipo de entidades las que obtuvieron dicho certificado; 11 el nivel 'Zerbitzua Euskaraz' y 17 'Bidean'.

Aunque la cantidad de los que han recibido el distintivo es importante, no lo es menos la diversidad de las entidades premiadas: 10 corresponden al sector de la empresa industrial; 9 al comercio y hostelería; 7 al sector del movimiento cultural, social y deportivo; y otros 4 al sector de servicios y finanzas.

Todo esto es reflejo del trabajo diario de euskaldunización que realizan los comercios, asociaciones y pequeñas empresas de Gernika-Lumo.



## Gernika Garbiketak, erabilera handituz 'Bidean'

Gernika Garbiketak-ek hainbat urte daroaz euskara normalizatzeko planean. Enpresan hainbat aldaketa egon dira Euskara Plana martxan jarri ebenetik: harrera automatizatua, telefono erantzugailua, kutxazainak... euskara hutsez jarri dabez, aurrekontuak, fakturak... be ele bietan jarri dabez. Ganera, Udalgaz eta Aldundiagaz daukiezan hartu-emonak be elebietan izaten dabez gaur egun be.

Erabilerearen indizeak gora egin eban nabarmen igaz eta aurton, pauso barri bat emonaz "Bai Euskarari Ziurtagiria" eskatu eta "Bidean" bereizgarria lortu dabe.

Ganera, aurton be, euskera eskolak emoten dira. Ahozko erabilera lantzeko eskolak dira horreek, eta eskola ordu horreetan euskeraz berba egitea da helburua. Holan eguneroko hiztegia jorratzen dabe eta apurka-apurka ohitua aldatu, eta euskeraz berba gehiago egiteko dabe.



## Cada vez más

En 2008 han decidido incorporarse al acuerdo para fomentar el euskera cuatro empresas y otros cuatro comercios: GAKOAK, TTIPI TTAPA, AUKA BIDAIK, ZAINDU fisioterapia zentrua y TANDEM, LEZAMA taberna, BAKE EDER kafetegia y EUSEBIO JOYEROS respectivamente.

Hoy en día 35 empresas de Gernika-Lumo trabajan duro para que en sus negocios el euskera vaya normalizándose poco a poco. Entre ellos hay empresas de todo tipo, tales como, centros de salud, administradores de fincas, asesorías, carpinterías, cristalerías... En cuanto al comercio ya son 120 los que forman parte del acuerdo.



## Ekin autoak, Bai!

Ekin/Bizkargi Autoak kontzesionarioak 3 markakako autoak saltzen dauz: Opel, Renault eta Toyotakoak.

Enpresan euskerearen erabilera eta ezagutza zein dan aztertze diagnosticoko zehatza egin da.

Orain, 3 urterako Euskera Plana martxan jartzea erabagi dabe, eta buru belarri dabilz.

Horregaz batera, kalidadeko zerbitzua emoten dabela erakusteko, Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko pausoak emon dabez, eta Euskararen Bidean Ziurtagiria lortu dau enpresek.

## Busturialdeko Irrati Telebistan esataritza ikastaroa eman dabe

Busturialdeko Irrati Telebistak 2006an jarri eban martxan Euskera Plana.

Igaz, jarritako hainbat helburu bete eta euskerearen erabilereak gorakada itzela izan ostean aurton pauso barri bat emotea erabagi dabe.

Esataritza ikastaro trinkoa egin dabe Busturialdeko Irrati Telebistako beharginek eta helburua testugintza eta irrati eta telebistarako ahozotasuna lantzea izan da.

Ikastaroaren ardura Mixer Bikoizketa Zerbi-

tzuko Eguzkik hartu dau eta beharginak oso pozik agertu dira ikastaroaren amaieran.

Euskera Planaren baitan, erabilera handitzez ganera, kalidadeari be garrantzia emon deutse Irrati Telebistan, langileek behar daben maileta izan deien.

## Bake Leku Txokoa. Fernandogaz berbetan

- Urte batzuk pasau dira kanpainan parte hartzen hasi zinienetik. Urte horreetan aldaketak ikusi dozuez?

- Bai, aldaketa batzuk egin doguz, orain behintzat txoko barruan kartelak ipini behar diranean ohitua hartu dogu euskeraz be ipinteko. Eta gutunak be euskeraz edo ele bietan egiten doguz. Alkarteko Idazkaria euskalduna izateak be badauka eragina horretan.

- Zelan pentsau zenduen kanpainan parte hartzea? Alkarteko danok ados jarri zinien?

- Alkartekide batzuk aldaketa egiteko beharizana ikusten genduan. Halandabe, hainbeste jenteren artean danok ezin egon ados. Batzuentzako garrantzitsua da, beste batzuek barriz "gaztelaniaz danok dakigu eta zertarako errepikatu gauzak" esaten dabe oraindino.

- Euskararen alde hainbat pauso emon dosuez. Ziurtagiria lortzeko apustua egin, eta "Bidean" bereizgarria lortu. Hurrengo urteetan, ze pauso emoteko asmoa dozue?

- Gure erronka nagusia hitzaldietan euskerearen presentzia areagotzea eta, barruko erabilera ohitura hartzea gitxienez hainbat gauza ele bietan egiteko. Euskaldun pasiboak kontzientziatu behar doguz honek daukan garrantziaz.

